

2015eko GIZARTE EKINTZA

Pasa den abenduak 2, Sailarekin izandako bileraren ostean hona hemen 2015ko Gizarte Ekintzari dagozkion datuak:

- 69 eskaera aurkeztu dira, zeinetatik 15k zuzenketa behar izan dute.

- 39 eskaera onartu dira (4 partzialki):
 - 32 odontologia gastuak.
 - 5 laguntza bidezko ugalketa.
 - 2 tratamendu Gizarte-Segurantzatik kanpo.

- 30 eskaerari ezezkoa eman diete:
 - 3 babestutako arrazoietatik kanpo egoteagatik.
 - 23 kalte mailara ez heltzeagatik.
 - 4 uko egin dute zuzenketa egin baino lehen.

Nabarmentzekoa da aurkeztutako 69 eskaeren batuketa aurten orotara 189.591 euro izan dela. Ondorioz, iaz bezala, ez da hondarririk egon eta dotazioaren gehienezkoa banatu egin da, hots, 50.000 euroak.

Deialdi honetan ikertze modua aldatu da, eskaeren gaineko lehendabiziko galbaea eginez, kalte maila zein eskaeren arrazoiak aztertuz, zuzenketa epera pasatu aurretik. Hau dela eta, zuzenketa behar izan duten eskaerak ia erdia izan dira (iaz 28izan ziren; aurten 15).

LABetik gizarte ekintzaren laguntzen gaineko elegiteak egin ezina salatzen jarraitzen dugu, hala izanik kobratzeko diru-kopuruen mugak kentzea eskatzen segituz. Horrez gain, laguntzetara bideratzen den kopurua handitu beharko litzatekeelakoan gaude. Izan ere, azken urteotan gutxitu eta estankatu egin da; eskatutakoa ez bezala, zeina urtero handitu egiten den.

2009	63.502€
2010	63.502€
2011	50.000€
2012	50.000€
2013	50.000€
2014	50.000€
2015	50.000€